


FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko, partaide bakoitzak proiektuari eskeini ahal diezaiokena zehaztu eta definituko dugu atal honetan.


Hasteko, nahitaezkoa ikusten dugu bakoitzak diru kantitate bat jartzea, hasieran sortuko diren kostuak ordaindu ahal izateko. Horregatik, partaide bakoitzak **1.200€** jarriko ditu. Horretaz aparte, Udaletxeari **500€**-ko diru laguntza eta Eusko Jaurlaritzari **5.000€**-ko mailegu bat eskatuko diegu. Greenpeace elkarteak, aldiz, **2.000€** eta Ecoembes erakundeak **5.000€** emango dizkigute.



Gainera, aplikazioa sortu ahal izateko eta beste hainbat ekintza aurrera eraman ahal izateko, adibidez, zalantzak erantzutea, kexak argitzea, egunerokotasuneko iragarkiak berri eta aldatzea... beharrezkoa dugu ordenagailu bat; horregatik, Eiderrek bere ordenagailua eskeiniko dio enpresari, jarduera guzti hauek gauzatzeko.

Baliabide fisikoak alde batera utziz, eta giza baliabideetan oinarrituta, teknologiari buruzko jakintza Eiderek eskeiniko digu, hain zuzen ere, informatikaren bi urteko saio bat egin zuen eta jakintza handia du esparru honetan. Gainera, aplikazioak egiten esperientzia duenez, erraztasunez egingo du. Laguntza beharrez gero, informatika enpresa batengana joko dugu.

Bestalde, Ane oso trebea denez sare sozialekin, bere ezagutza erabiliko dugu Instagram eta Facebook-eko profiletarako. Ideia oso originalak dituen, eta pertsona oso sortzailea denez, ez zaio batere zaila izango. Gainera, publizitateko ikasketak egitekotan dago eta mundu horretan murgilduta dagoenez asko daki gure produktua saltzearen teknikei buruz; beraz, hau oso baliagarria izango da gure proiektua promozionatzeko eta beste produktuekiko lehiakortasuna sortzeko.



Mirenerekin jarraituz, txikitatik bikain moldatu izan da zenbakiekin eta matematika bere ikasgai gustukoena da. Hori dela eta, kontabilitatea eramango du. Hala eta guztiz ere, esparru honen ezagutza eskuratuko du doingo kurtsilo bat egin.

Azkenik, Maialenek besteak konbentzitzeko eta erabakiak komunikatzeko ahalezia handia du. Gainera, oso pertsona txukuna eta antolakuntzan ondo aritzen den pertsona da, horregatik, ezinbestekoa izango da beste elkarte eta enpresekin harremanetan jartzeko eta aliantzak egiteko garaian.

